

...eta Kitto!

2019-IV-5

1095 zkia.

Txirrindularitzaren hiriburu bihurtuta



Toribio Etxebarria, 1

EUKI

servicios inmobiliarios

20 urtetik gorako esperientzia
eskaintzen dizuegu
balorazioetan eta eraikinetako
salerosketa, alokairu eta
traspasorako bitartekotzan



bitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com

Eibarko
Zuatzu Klinika

EMAKUMEA ZAINZEN ESPEZIALISTAK

Ginekologia.
Obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Titietako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Gauzarik garrantzitsuena jokoan dagoenean, edonora joateko prest zaude.

Baina, batzuetan, nahikoa da metro batzuk ibiltzea.

**Eibarren gaude, Urkizu pasealekuko 11. zenbakian.
Zain gaituzu gure kontsulta eraberritu berrian.**

 **943 121 021**


ZUATZU
KLINIKA

www.clinicazuatzu.com



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Aragoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Felix Beitia

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta intzieren erantzunkizunik)



**Eibarko Udak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA)**

Eskutitzak

– Espazio libreen alde, Eibarko Gazte Asanblada –

Idatzi honen bitartez, aurreko asteko eguenean Gaztetxean gertatutakoa salatu nahi dugu. Lehenik eta behin, eragin ahal izan genituen egoera deserosoen aurrean gure barkamenik zintzoenak eskatu, bereziki auzokideei eta EUIMeko lagunei. Eguenean Eibarko Herri Unibertsitatea ospatu zen Eibarko gaztetxean. Bertan arratsalde guztian zehar gauera arte iraun zuen egitaraua egin genuen: hitzaldiak, bertsoak, afaria.. eta, amaitzeko, kontzertuak. Eguena izanik, ordutegia zaintzen saiatu ginen arren, egoera deserosoren bat eragin genuela jakin genuen, udaltzainak Gaztetxera etorri baitziren, bizilagun biren deia jaso zutelako. Gazte Asanbladak bere gain hartzen du auzokideei eragindako molestien ardura eta sentitzen dugula adierazi nahi dugu.

Hala ere, gutun honen bitartez udaltzainek ondoren izan zuten jarrera salatu nahi dugu. Izan ere, musika kenduko genuela esan eta gero, ez zuten beraien lana amaitutzat eman. Gaztetxe barruan gelditu ziren, mehatxuen bitartez Gaztetxea desalojatu nahian, esanez gu irten ezean Ertzaintzari deituko ziotela, desalojoa egin zezan. Horrez gain, bi lagun identifikatu zituzten eta, gainera, udaletxearekin hitzar-

men bat genuela adierazi zieten unibertsitateko ki-deei, gezur hori tartean zela, horren ondorioz gaztetxea hustu behar zutela esanez.

Gazte Asanbladak argi utzi nahi du ez duela inoiz izan inolako hitzarmenik edo elkarrizketarik Eibarko Udalarekin. Gaztetxea espazio okupatu eta librea da, autogestioan sinesten duena, eta gazte eta herri mugimenduek zaintzen dutena. Udala bezalako instituzioei inolako legitimitaterik eman barik, izan ere behin baino gehiagotan adierazi dute ez dutela nahi gurea bezalako espazio bat herrian. Guk herriarekin lan egin nahi dugu eta auzokideak kontuan hartu. Ondorioz, asanblada ireki batera dei egin nahi dizuegu, datorren asteartean 18:00etan, Gaztetxean.

Amaitzeko, Eibarko udaltzainei Gaztetxearen dinamika oztopatzeraz ez etortzeko deia egiten diegu, are gutxiago mehatxuekin, gezurrak esaten eta jendea identifikatzeraz etortzeko.

Ez daukazue zilegitasunik ezta legerik ere egin jokatzen zenuten moduan jokatzeko. Gune askeak maite ditugulako, autogestioa da bidea.

Eibarko Gazte Asanblada

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MIKA. - Milika, jate kontuetan sekula konforme ez dagoena. *"Jaten oso mikia da zuen mutilla".* Negartia, bata dela bestea dela, beti protestaka, kexaka ibiltzen dena. *"Hau da hau ume mikia, hutsagaittik jartzen da negar batian".*

astean esanak

"Orain arte aurkitutako Tiranosaurio Rex handiena 1991koa da eta hamar urte behar izan dituzte bere hezurrik garbitzeko. 13 metro luzera zuen eta 8.800 kiloko pisua. Handiena izateaz gain, bera da orain arteko zaharrena ere. *Scotty* 30 urterekin hil zen eta bizi luzea izan zuen: tiraunosaurioak azkar hazten ziren, baina oso gazte hiltzen. *Scotty*-k ere bizitza gogorra izan zuen, saiheutsak apurtuta, masail-hezurra kaltetuta eta haginkada buztanean. Kanadan dago ikusgai, Sakarchewa hiriko tiranosaurioen museoa"

(FELIX ARES, ZIENTZIALARIA)

"Gilletts Jaunes edo txaleko horien matxinadak urrats handiak egin ditu, Espainian ezinezkoa izango zena. Hemen errepretoa eraikita baitago, mozal legea eta inor auzitan jartzeko gai ez den Zigor Kodearen artikulatuarekin. Hogei borroka-egun manifestazio eta istiluekin kaleetan... holakorik ezin daiteke Espainian imajinatu inpunitate osoz jaurtitako bala bat ez badago tartean. Hain gara otzanak Espainian kuku-erlojua asmatu zuenak gure artekoa izan behar zuela. Hori bai, Frantzian ere hasi dira neurriak hartzen Fauchon erasotu dutenean: sabela fin-fin betetzeko gula-tenploaren aurka? Hortik bai ez garelara pasatuko!"

(MIGUEL SANCHEZ-OSTIZ, IDAZLEA)

"Noiz ikusi ditugu aberatsak inoren kakak batzeko makurtzen? Inoiz ere ez. Orain, txakurren, ez gizakiak, kakak batzeko makurtzen dira eta euren nagusien ipurdiak etorkinek, hau da, esklabo berriek, garbitzen dituzte. Mundakan txakurrek bederlatzi hilabetean daukate hondartza libre eta nire anaia, fobia dienez, ezin da hondartzara joan. Txakurrek gure eskubideen gainetik eskubideak dituzte. Hutsalakeriak zelako balioa duen gure artean! Izan nintzen azken ezkontza Disney ezkontza bat izan zen, zinematik kopiatutako zeremoniarekin. Mundu ergel horretan lotsatuta nengoan, ez dakit nola eutsi nion 20:00ak arte..."

(EDORTA JIMENEZ, IDAZLEA)

Autismuaren aldeko ekitaldixak urdiñez margotu zittuan kaliak

Ehunka lagunek hartu eben parte domekan Gautenak, autismua dakenen senidien Gipuzkoako alkartiak antolatutako Urdinduz egunian. Autismuaren Kontzientziaziñorako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekimena goizian hasi zan, Untzaga plazan, eta trikitilarixak lagunduta herriko kaliak primerako giruan zierkatu eta gero, atzera be Untzagara bueltan amaittu zan ibillaldixa. Nerea Lodosak eta bere taldiak Marea Urdiñaren kantuarekin dantza saiaua egin eben eta Juan Bautista Gisasola abesbatzak be ikuskizun bikaina eskindu eban. Ekitaldiko argazkixak etakitto.eus/mediateka helbidian ikusi leikez.



Ametsa eta Bacoleku Urkizu izan dira Gilda Lehiaketako irabazliak

Ostalariek eta Dendariek Berbetan programaren barruan Euskeraz Primeran! V. Gilda Lehiaketia egin zan aurreko aste- teko eguazten, eguen eta barixakuan. Toribio Etxebarria kaleko Ametsak aurkeztu dau gildarik onena epaimahaikidiendako,

baina Untzagako Guridi tabernako gildari be aipamen berezixa egin detse. Herritarren botuen arabera banatu dan sarixa, barriz, Urkizuko Bacolekuk irabazi dau. 150 euroko sarixa eta diplomia jaso eben martitzen arratsaldian bixak.

Aurreko urtietan lez, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen daben lehiaketiak arrakasta haundixa izan dau: 22 tabernak hartu dabe parte, eta hiru egunetan jende mordia ibilli da tabernetan, gildak probatzen. Epaimahaixa osatu daben Mireia Alonso, Josu Mugerza eta Iñigo Kortabartek ez dabe lan erreza izan erabagixa hartzeko. Parte-hartzaille kopuru altua eta, batez be, aurkeztutako gilden mailla ona azpimarratu dabe hirurak: *"Txalogarrixa da lehiaketan parte hartzeko ostalarixak egi- tten daben biharra, hortik lehiaketiak he- rritarren artian dakan arrakasta"*. Izan be, 3.000 lagun baiño gehixagok emon dabe botua eta horren artian zozketatu dogun asteburu baterako egonaldixa Carmelo Benaventeri egokitu jako. Zorionak!



Gilda Lehiaketako irabazliak martitzenian jaso zittuen sarixak. Eurekin, epaimahaikuak izan ziran.

Udalak eta Iza-Campezok Errebalgo obraren kontratua siñatu dabe

Eguazten goizian siñatu eben kontratua Udalak eta Errebalgo eraikiñaren biharra egingo dittuan Iza-Campezo aldi baterako enpresa-alkartiak. Lanak lehiaketa bittartez, 5.369.178 eurotan (BEZ barne) adjudikatu dira eta obrak egitteko epia 15 hillebe- tekua izango da. Eraikuntza enpresako ordezkariak esanda- kuaren arabera, biharrian hasitta dagoz, laneri ekin ahal izateko aurretik egin biharreko guztiak preparatzen. Aurrekusi dabenez, hil honen amaiera aldera hasiko dira Errebalen biharrian eta, al- katiak esandakuaren arabera, *"2020rako eraikiñaren ekipamen- duaz berbetan egongo gara"*. Gaiñeratu ebanez, *"lanak adjudi- katziarekin batera Errebalen inguruko parte-hartze prozesua, bi- garrena, abian ipiñi da"*.

Hain zuzen be, prozesu horrekin oso kritiko azaldu dira Eibarko EH Bilduko ordezkariak, eguazten goizian bialdutako idatzixan. Diñuenez, *"EH Bilduk ez dau Errebalendako parte-hartze ariketa espresik onartuko. 2013an amaittu zan aurreko parte-hartze ari- keta eta EH Bilduk urtiak emon dittu bigarren ariketia egitteko es-*



katzen. Sei urte zerura begira egon eta gero, PSEren Udal Go- bernuak parte-hartze ariketa espres bat planteatu dau, maiatze- rako emaitzak esku artian izateko. Guretako hartu daben erabagi unilaterala ez da serixua eta parte-hartze ariketa sendo bat exiji- tu detsagu PSEri".



Bixar aurkeztuko ditue Eibarko Elkarrekin Podemos-en hautagaixak

Elkarrekin Podemos taldekuak maiztuko hauteskundietarako Eibarko hautagaizta izango danaren aurkezpena egingo dabe bixar, 12:30xetan Untzagan. Ezker Anitza eta Equo alderdixekin ados ipiñi eta gero, Eibarko Elkarrekin Podemos izenarekin alkarrekin aurkeztuko dira Udal hauteskundietara. Oin dala egun batzuk aditzera emon ebenez, zerrendaburua Isabel Fernandez Pejenaute izango da eta, koaliziñotik diñuenez, "herrixan andra bat alkatagai izateko aurkeztuko dogun baxarrak gu gara". Zerrenda osatuko dabe-

nak bixar aurkeztuko dituen arren, zerrendako lehen tokixetan Pablo Leon eta Julen Bollain egongo dirala aurrertu dabe. Lehena 32 urteko arkitekto eibartarra da eta bigarrena, berriz, bi urte t'ardi Eusko Legebiltzarrian biharrian daroiazan 29 urteko eibartarra. Gure herriko hautagaixekin batera, Lander Martinez (Podemos Euskadi-ren Idazkari Nagusixa), Pilar Garrido (Podemos-en Kongresurako hautagaixa) eta Maria Valiente (Gipuzkoako Ahalduñ Nagusirako Podemos-en hautagaixa) egongo dira bixarko ekitaldixan.

autuan

LEGARREKO JAIXETARAKO BILLERIA

Legarreko jaixak antolatzeko billeria egingo dabe eguaztenian, 20:00etan Legarre Gain alkartian. Jaixak antolatzia auzolana dala jendiari gogorarazi nahi detse eta, hortaz, billerara juateko deixa egin dabe.



ARTISAUAK ONDARRUN

Atzoz geroztik eta apirillaren 14ra arte Eibarko hainbat artisau (Avelina Rojas, Delolindo, Kili Kilima, Hartara Jone eta Xarlem Creations) Ondarrun egongo dira (Itxas Aurre plazan), han ipiñi daben "Pop Up Store" dalakuan arropa, apaingarri, artisautza eta bestelakuak saltzen. Domekan, gaiñera, DJ bat egongo da musikia ipintzen, 13:00etatik 15:00ak bittartian.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es

 <p>BERRIA!!! BEGI ingurunerako tratamendua</p>	 <p>LIFTING tratamendua</p>						
 <p>BETILE LUZAPENAK</p> <p>LIFTING</p>	<p>LASER DEPILAZIOA</p> <p>5 saiotarako BONOA 99€</p> <p>Hanka osoak + iztarreak + besapeak 95€</p> <table style="width: 100%;"> <tr> <td>Hanka osoak 60€</td> <td>Bizkarra+Lunbarra 50€</td> </tr> <tr> <td>Iztarreak+Besapeak 50€</td> <td>Expaina/Begitartea 10€</td> </tr> <tr> <td>Bularra+Abdomena 50€</td> <td>Zona/saioko 30€</td> </tr> </table>	Hanka osoak 60€	Bizkarra+Lunbarra 50€	Iztarreak+Besapeak 50€	Expaina/Begitartea 10€	Bularra+Abdomena 50€	Zona/saioko 30€
Hanka osoak 60€	Bizkarra+Lunbarra 50€						
Iztarreak+Besapeak 50€	Expaina/Begitartea 10€						
Bularra+Abdomena 50€	Zona/saioko 30€						

“Eibarren 1.500 baietz” kanpaina hasi dau Udalak



Jendia errenta aitorpena euskeraz egittera animatzeko asmuarekin, Udaleko Euskera Batzordiak “Eibarren 1.500 baietz!” goiburuko kanpaina hasi dau. Euskera Batzordiak dittuan datuen arabera, iazko ekitaldixan 1.209 eibartarrek, errenta aitorpena egin eben herritarren %10 inguruk aukeratu eben euskera eta, horregaittik, kopuru hori igotzeko esperantzarekin ekin detse erronka modura planteau dabean kanpaina. Gaur egun errenta aitorpena egitteko hiru modu dagoz (autolikidaziño proposamena

onartzia, mekanizatu eta internet bidezkoa) eta hiruretan euskera erabiltzeko aukeria daguala azpimarratu dabe. Gipuzkoan astelehenetik aurrera onartu ahal izango dira autolikidaziño proposamenak. Errenta mekanizatuaren kasuan, Ogasuneko buleguetan aitorpena egitteko hitzordua apirilaren 12tik aurrera hartu ahal izango da eta 15ian hasiko dira aitorpenak aurkezten. Eta aitorpena jaso eta onartu ez dabena, barriz, apirilaren 17tik aurrera eskatu leikie mekanizaturako hitzordua, 902 100 040 telefono zenbakira deittuta.



Ate irekixen jardunaldixa egingo dabe eguaztenian Deparkelen

Apirillaren 11 Parkinson gaitza gogoratzeko eguna izaten da mundu maillan eta, horren aitzakixarekin, Deparkel Debarrena Parkinson Alkartekuak ate irekixen jardunaldixa egingo dabe bezperan, eguaztenian. Arratsaldeko 17:30xetatik aurrera, lokala zein alkartiak egitten dabena ezagutu nahi dabean guztiendako atiak zabalik egongo dira Ardantza kaleko 1. zenbakixan alkartiak dakan lokalian eta, gainera, “jateko zeozer be emongo detsagu”. Alkarteko ordezarixak Deparkel bertatik bertara ezagutzera animau nahi dabe jende guztia.

Programa betia preparau dabe bixar Bulkada Eguna ospatzeko

Eibarko Ernairen eskutik ospatuko da bixar Eibarren Debarrenako Bulkada Eguna, “apirilaren 19tik 22ra Lemoan egingo dan Gazte Topagunereko preparatzen juateko”. Prestatu dabean programan denetariko jarduerak dagoz. Eguardixan ekingo detse, 12:00xetan Topagunea aurkezteko egingo dabean mahai-inguruarekin. Ondoren, herri bazkarixa hasiko da (15:00etan) eta, 16:30xetan, bertso saiua eskinduko dabe Eli Pagola eta Joanes Illarregik. Arratsaldeko 18:00etan poteua hasiko dabe, Elektrotxufla elektrotxaranguak lagunduta eta, hori amaittu eta jarraiz, 20:30xetan ekitaldixa eta afari-merienda egingo dittue Gaztetxian. Eta, eguna agurtzeko, 21:30xetatik aurrera Issuna, Radio Revolucion eta DJ Fruterixia taldiak kontzertua emongo dabe.



Ortua ipiñi dabe Arrateko Andra Mari eskolan

Arrateko Andra Mari ikastetxeak, udaberrixarekin batera ortu zoragarrixa preparau dabe, Udalaren ingurumen saillaren laguntasunarekin. Zuzendarixatik azaldu dabenez, “gure ikasliak hainbat barazki landatu dittue ilusiño haundixarekin eta pozarren: mallukixak, zierbak, kipulak eta letxuga klase diferentia”.



lagun jua dira antzerkira Jardunaldixetan. Sarreren %27 Coliseoaren Lagunak txartelaren deskontuarekin saldu dira. Internet bidez %51'48 saldu dittue eta bestiak takillan.

Miren Baranguan eta Jose Gimare EH Bilduren ekipuan egongo dira

Aurreko astian emon eben ezagutzera Eibarko EH Bildukuak hamaikako ekipua eratu dabela eta zerrendako irteera postuetan Miren Baranguan eta Jose Gimare eibartarrak juango dirala. Euren berbetan, *“ekipo anitza, konprometidua, bihargiña eta irabazlia sortzen ari gara”*. Miren Baranguan Yarza (1991), Haur Hezkuntza graduatua da eta Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleanitzetan Masterra be badaka. Betidanik jardun dau herrigintzan buru belarri eta, diñuen, *“ilusiuarekin hartu dau”* politikan jarduteko eskindu detsen aukeria. Jose Gimare Escolar (1981), barriz, aplikaziño informatikuen garapenian goi tekniarixa da eta Turismo ikasketak be badittu. Azken urtiotan ostalaritzan dihardu, bere tabernan biharrian. Musika munduan be ibillitakua da eta, promotoria izatiaz gain, iaz egin zan “Ez Dok Fest” jaialdixa antolatzen be jardun eban.



Udal hauteskundietarako zerrendia presentau dabe Eibarko Sozialistak

Domekan presentau zittuen Eibarko Sozialistak maiatzaren 26ko hauteskundietarako aurkeztuko dabezen hautagaixak, Txaltxa Zelaxan. Miguel de los Toyos buru dakan zerrendia 11 gizonek eta 10 andrak osatzen dabe, 22 eta 71 urte bittartekuak: Iñaki Arriola, Ana Alberdi, Arcadio Benitez, Carlota Utrera, Alejandro Gomez Ulloa, Merche Unanue, Iñaki Azkue, Isabel Sarasua, Ander Curiel, Marisol Colmenero, Santi Iruetagoiena, Marisa Larrauri, Pedro Escribano, Jon Irala, Patricia Arrizabalaga, Patxi Lejardi, Esther Velasco, Alberto Albisategi eta Idoia Sarasketa izango dira hautagaixak, oingo alkatiarekin batera. Ekitaldi politikuari musikia ipintzen, bestalde, Trio Medianoche taldekuak jardun eban.

Kursaaleraño eruan zittuen euren eskaeriak Egogaingo bihargiñak

Egogain Gerontologia Zentruko bihargiñak Donostiraño eruan zittuen euren aldarrixak astelehenian, Kursaalian “International Conference on Integrated Care 2019 - San Sebastian- Basque Country” izeneko kongresuaren hasieria aprobetxautu. Iazko urtiaren amaieran ekin zetsen egoitzako bihargiñen lan baldintzen eta bertan daguazen nagusixen eskubidien aldeko burrukari eta, harrezkero, hamaika mobilizaziño egin dittue, eskatzen dabena ezagutzera emoteko. Bestiak beste martxuaren 23an manifestaziñua egin eban, Untzagatik abiatuta, eta Borrokaldiko Antolakuntza Taldiak *“oso arrakastatsua”* izan zala azaldu dau, *“herritarrak, senidiak, bihargiñak eta Eibarko hainbat kolektibotako kidiak”* parte hartzen izan ziran eta.



KOLDO MITXELENA ZUMARAN
5. URTEMUGA (2014-04-01)

*Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin geratzen da.*
ETXEKUAK

Vermont-eko (AEB) Northern Harmony abesbatzak emanaldia eskainiko du Coliseo antzokian apirilaren 11n, eguenean, 20:30ean. Maila goreneko abesbatza gurean izango dela eta, herriko hainbat taldek emanaldia biribildu nahi izan dute eta eurekin batera jardungo dute taula gainean. Beraz, munduko txoko desberdinetako kantak jorratzen dituen Northern Harmonyk Sostoa abesbatza, Eibarko Koro Gaztea eta Kezka dantza taldea izango ditu lagun datorren asteko saioan. Sarrerak 5 euro balio du.



Northern Harmony-ren kontzertua herriko taldeek biribilduko dute

Larry Gordon-ek zuzendutako abesbatza hau 1993an sortu zen Vermont-en (Ameriketako Estatu Batuak). Abesbatza tradizionalen ohiko erreperertoriotik haratago, Northern Harmony taldeak munduko kantu polifoniko desberdinak jorratzen ditu, tartean Balkanetako, Georgiako, Korsikako eta Hego Afrikako kantak. Horiekin batera Ameriketako garai baten kantu eta harmoniak lantzen ditu abesbatzak, baita musika-tresnak ere. Hogeita bost urteko ibilbidean Amerika eta Europan zehar hamaika bira egin ditu abesbatzak, eta toki guztietan oso harrera ona egin diote, egiten duten musikaren kalitatea goraiatuta.

Otsailaren 23az geroztik Europan dabilzala aprobetxatuz, bi hilabete Ingalaterran

eta Frantzia emanaldiak eskaintzen ibili eta gero ailegatuko dira Eibarrera. Astelehenean eman zuten lehen kontzertua Euskal Herrian, Iruñean, eta bigarrena gure herrian eskainiko dute datorren eguenean. Ondoren, hilaren 12an eta 13an Errenterian egingo diren emanaldiekin agurtuko dute udaberriko bira.

Northern Harmony abesbatza osatzen dutenen artean, mailarik altuena duten 14 kantari eta musikariak aukeratu dituzte, abesbatzak udaberri honetan Europan egingo duen birarako: Larry Gordon, Jeremy Carter-Gordon, Silas Hamilton, Willy Clemetson, Luke Linich, Evyatar Gershon, Mia Bertelli, Stella Green Sanderson, Anna Peel, Julia Placier, Emma Rothman, Elsa Schaffer, Heidi Wilson eta Sarina Yospin Partridge.

Sostoa, EKG eta Kezka

Coliseoan egingo duten kontzertuan herriko taldeek, Sostoa abesbatzak, Eibarko Koro Gazteak eta Kezka dantza taldeak, euren erreperertorioko hainbat pieza eskainiko dituzte, Ameriketatik etorritako taldearen kontzertua biribilduz. Emanaldi berezi honetatik kanpora ere, eibartarrek agenda bete-betea dute.

Kezka dantza taldeko 36 kide Anberesen (Belgika) egon ziren aurreko asteburuan Arrateko ezpata-dantza eskaintzen eta esperientziarekin pozarren bueltatu dira etxera. Eibartarrekin batera Belgika, Frantzia eta Eskoziako taldeek jardun zuten, Anbereseko ezpata-dantzaren 50. urteurrenaren harira egin zen jaialdian. Kezka dantzariak Anberesko katedralaren aurrean, merkatu plazan eta Borgehout distritoko udaletxe parean dantzatu zuten, besteak beste.

Eibarko Koro Gazteak, bestalde, Northern Harmony abesbatzarekin kantatu eta, hurrengo eguenean, bigarren kontzertu bat eskainiko du Coliseoan, hori ere berezia. Izan ere, EKGren 10. urteurrena ospatzeko kontzertua izango da eta Elena Martin Lapeyrak zuzentzen dituen gazteak ilusio handiz ari dira prestatzen. Apirilaren 12an izango da, 20:30ean Coliseoan (5 euro).

Eta **Sostoa abesbatzak** ere hitzordu berezia izango du hurrengo asteburuan: apirilaren 13an (zapatua), 20:00etan, kontzertu sakroa egingo du Karmengo Amaren elizan. Aurtengo saioan, Josu Elberdin Badiola konpositorearen erreperertorio monografikoa kantatuko dute.



Kezkaok Amberesen izan ziren aurreko asteburuan.

Gipuzkoan (Irun, Errenteria, Donostia, Zestoa, Itziar, Zegama eta Eibarren) zazpi zigor-destakamentu ezarri ziren 1942 eta 1944 urte bitartean, eta 1.235 presoekin zuten lan bertan. Aiala Oronozek 'A pico y pala' liburua kaleratu du Irungo Nicolas Gerendiain elkartearekin elkarlanean, Irungo destakamentuaren inguruko ikerketa. Orain, Eibarko destakamentua du ikergai eta horren berri emango du hilaren 10ean 19:00etan Portaleko Areto Nagusian.



AIALA ORONÓZ (ikerlaria):

“Zigor-destakamentuen gaia ezagutzera eman behar da, ez delako batere landu”

- Nolako zigor-destakamentuak egon ziren Eibarren?

Ikerketa irekita oraindik eta oraindik ez dut Eibarko kasuak zehatz-mehatz aztertu. Irungo destakamentu penala aztertu dut batez ere, baina fenomeno globala izan zenez, Gipuzkoako beste destakamentuak ikertzea ere beharrezkoa dela ikusi dut. Eibarko destakamentuak berezitasun bat du besteekin alderatuz, Suntsitutako Eskualdeen Zuzendaritza Nagusia izan zelako arduraduna, Gipuzkoako beste destakamentuez Ferrocarriles y Construcciones ABC enpresa pribatua arduratu zen bitartean. Oraindik ez dakit Eibarren lan egin zuten presoek nolako lana egin zuten zehazki, gerra osteko kalteak konpontzeaz gain beste obra publiko batzuk egin zituztelako. Irunen egin dudana antzera, Eibarren eta Gipuzkoako beste destakamentuetan presoekin izenak eta testigantzak jasotzea da nire asmoa. Beraz, hitzaldian herritarrei gaia azaldu eta eurekin kontaktua egin nahiko nuke Eibarren gertatutakoa sakonki aztertzeko.

- Zenbat presoekin egin zuten lan Eibarko destakamentuan?

Dokumentu ofizialek diotenez 250 preso egon ziren 1942. urtetik 1944ra. Ez zegoen preso eibartarrik, Espainia guztitik

etorritakoak ziren. Donostiko presoendegira ekartzen zituzten eta handik Gipuzkoako destakamentuetara banatu.

- Non bizi ziren lanek irauten zuten bitartean?

Eibarko kasuan ez dakit, baina Irunen obren alboan zegoen hiltegi batean eta Errenterian merkatu zahar batean bizi ziren, adibidez.

- Eta lana amaitzen zutenean, zer?

Gauza konplexua da. Sasoi hartan presoekin kopurua handia zenez, diktaduraren politikak asko aldatu ziren. Kartzelak gainzeka zeuden. Orduan, preso batzuk destakamentu penaletara bidaltzen zituzten eta beste batzuk baldintzapean libre uzten zituzten. Obra asko ez ziren presoekin bakarrik egin, baita langile libreekin ere. Gero, libre geratzean, preso izandako asko Gipuzkoak geratu ziren bizitzen.

- Argia eman diozu ilun zegoen gai bati?

Ikerketaren emaitzak jasotzen dituen liburu bat kaleratu dut eta Irungo destakamentuan egon ziren 207 presoekin izenak eta testigantza batzuk bildu ditut, besteak

beste. Zenbaki eta datuez gain, presoekin egoera nolakoa zen eta Gipuzkoara nola iritsi ziren ere jaso dut. Liburu hau abiapuntua da eta Gipuzkoako beste destakamentuetan gertatutakoa jasotzea da asmoa. Metodologia landuta daukat eta beste tokietako historialariekin kontaktua egitea gustatuko litzaidake elkarlanean aritzeko. Ezagutzera eman behar den gaia da, ez delako batere landu.

- Oztopo asko aurkitzen dira memoria historikoa berreskuratzeko?

Lehenengo arazoa dirua da. Diru-laguntzak behar izaten dira horrelako lanak egiteko eta Gipuzkoan jaso ahal ditugu, zorionez. Bestetik, artxibo batzuetan ezin da dokumentuetara iritsi, ez daudelako antolatuta eta publikoari zuzenduta kontsulta irekiak egiteko.

- Sistemak berak ez du errazten horrelako ikerketak egitea?

Borondatearen arabera hori. Probintzia eta autonomia bakoitzak bere politikak ditu horrelako dokumentuak tratatzeko. Gipuzkoako Aldundiak probintziako artxiboaren ardura hartu du eta espedienteak eskuragarriago jarri dituzte, adibidez. Dena dela, honen inguruan lan egin behar da eta iristen zaren lekuraino iritsi, poliki-poliki.

**“Eibarko destakamentuan
250 preso egon ziren
1942 urtetik 1944ra”**

Afizionatuen mailako estatuko lasterketa garrantzitsua eredu garria izan zen iaz 47. edizioa bertan behera laga behar izan zenean ere. Hori aipatu zuten martitzenean Eibarko udaletxean egindako aurkezpenean hitz egin zuten instituzio guztietako ordezkariak, horrelako egoera baten aurrean zaletuek zelaz erantzun zuten gorai patuta. Garailerik izango ez zuten tropelaren zain egon zelako jendea helmugan, txirrindularien lana txalotzeko. Etzi gozatzeko aukera berria egongo da.



Lasterketa goizeko 09:00-etan hasiko da, martxa neutralizatuan Untzagatik Azitaineraino jaitsi eta bertatik abiatzeko. **12:20/12:30 bitartean** txirrindulariak Azitainetik sartuko dira Eibarren lehenengo aldiz, bariantetik Ixua gainaren bila, eta **13:10/13:20 bitartean**, berriz ere Azitainetik, Toribio Etxebarrian kokatutako helmuga bilatuko dute.

Lasterketak guztira **167 kilometro eta erdi** izango ditu eta lau ordu gora beharko du irabazleak helmugaratzeko. **Sei mendate** gainditu beharko dituzte: 1. mailako Ixua, 2. mailako Azkarate eta Elge-

ta, eta 3. mailako Itziar, Meaga eta San Miguel.


25 taldek hartuko dute parte, bakoitzak zazpi txirrindularirekin; hau da, **175 kiro-larik** osatuko dute Valenciaga Orotzarrearen 48. edizioak izango duen parte-hartzea. Lizarte eta Caja Rural - Seguros RGA aurreikusten dira talde indartsuenak bezala. Antolatzailleak aurkezpenean azaldu zuten bezala, hainbat berrietasun gehitu dizkiote probari, guztiak ere txirrindularien mesederako: horrela, oharrezale optiko-akustikoak jarriko dituzte ibilbidean, azken hiru mendateetako igoerak eta jai-



tsierak Youtuben kontsultatu daitezke... 30 motor jarriko dituzte lotura-lanak egiteko eta hiru anbulantzia, euretako bat

medikalizatuta, ibiliko dira lasterketan.

Valenciaga Orotzarreak **palmares handia** du 1972an Jose Luis Viejok lehenengo edizioa irabazi zuenetik. Yañez (1973), Martínez-Heredia (1975), Suarez Cuevas (1976), Julian Gorospe (1981), Jokin Mujika (1982 eta 83), Murgialdai (1985), Garmendia (1987), Rubiera (1994), Unai Osa (1996), Freire (1997), Joaquim Rodriguez (2000) eta Mikel Nieve (2007) dira proba irabazi dutenetako batzuk, guztiak ere gero profesionaletan maila eman zutenak, Freireren kasuan munduko txapelkun izateraino.



IBILBIDEA

Eibar / Azitain / Maltzaga / Elgoibar / Altzola / Mendaro / Deba / Itziar (3. maila) / Zumaia / Getaria / Zarautz / Meaga (3. maila) / Aizarnazabal / Zestoia / Azepeitia / Loiola / Azkoitia / Azkarate (2. maila) / San Antolin / Elgoibar / Maltzaga / Sorraluze / Osintxu / Bergara / Upera / Elgeta (2. maila) / Kanpazar / Arrasate / Bergara / Sorraluze / Maltzaga / Azitain / Ixua (1. maila) / Etxebarria / San Miguel (3. maila) / Elgoibar / Azitain / Eibar



lako proba amaitzeko berrogei kilometroren faltan izandako istripuak proba bertan behera lagatzera behartu zituen antolatzailleak lehenengoz. Hala ere, zaletuek bikain erantzun zuten eta tropelari itxaron zitoten.

XLVIII. VALENCIAGA OROITZARREA (apirilak 7)



GARAILEA



MENDIA



23 URTEK AZPIKO ONENA



SAIATUENAREN SARIA



SPRINT BEREZIAK



TARTEKO HELMUGAK



LEHEN EUSKALDUNA



KONBINATUA



TALDEKAKO SAILKAPENA

XLI. UDABERRI
Proba

II. EIBARKO HIRIA
Sari Nagusia

III. CCE SARIA
Eibarko Txirrindulari Elkarte

LXXXIV. S. JUAN
Sari Nagusia



BIZIKLETAREN EGUNA (irailak 15)

XVII. TXISTORRA EGUNA (azaroak 23)

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- SD Eibar Fundazioa
- Udal Kirol Patronatua
- Radio SER Eibar
- Izadi Loradenda
- Birjiñape Kafetegia
- Casa Cantabria
- Inpratex
- El Corte Inglés - Eibar
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Azitain Jatetxea
- Mapfre
- S.C.R.G. Bide-Alde

- S.C.R.G. Kamarroak
- Trinkete Garagardotegia
- Ongi Etorri Kafetegia
- As Burgas Kultur Etxea
- Pneumax
- Kantoi Zerbitzu Estazioa
- Oberena Harategia
- Ezpeleta Ehun-Ostalaritza
- El Castillo Hotela
- Ikolan Lanaldi
- Guria Elektrizitatea
- Arkupe Gastro Pub
- Hotel Unzaga Plaza
- Avia

- Naia Car-Kia
- Larragest Inmobiliaria/Aseguruak
- Bista Eder Hertz-klinika
- Garajes Garcia
- Laurel & Hardy
- Ruibal
- Guridi taberna
- Ipur Sagardotegia
- Oria Sport Wear, S.L.
- Ixua Hotela
- Nationale Neederlander
- MTE
- Sportpublic TV

Datorren aste osoan jokatu den Euskal Herriko Itzulia hainbat aldaketa izango ditu, Eibarko antolatzaileek urtetik urtera zaletuei onena eskaintzeko asmoarekin jarraitzen baitute. Nahi beste izen handi ikusteko aukera izango da gure kale eta mendi maldetan. Itzulia astelehenean hasiko bada ere, bezperan -hau da, domekan-egingo dute taldeen aurkezpena Zumarragan. Bigarren etapako *sterrato* tarteeak (5 kilometro guztira) eta gurean jokatu diren azken bi etapak eman dute zeresan gehien, hasierako erlojuz kontrakoarekin batera. Eguraldiak ere baliteke bere eragina izatea.

2019ko Itzulian guztira 23 taldek hartuko dute parte, euretako hamazortzi Word Tour-ekoak eta gonbidatutako beste bostak Kontinental Profesional mailakoak. Aurtengo edizioan talde bakoitzak zazpi txirrindulari izango ditu, guztira 161 parte-hartzaileekin.

Astelehena, 8
Zumarraga-Zumarraga (11,3 kilometroko erlojupekoa)

Ibilbide motza, baina gogorra. 8,2 kilometroan Antioko ermita. Hor 2,3 kilometro luzerako igoera izango dute, 225 metroko desnibela eta %9,7ko malda; azken 100 metroan %21eko malda. 3. mailako mendate puntuagarritzat hartuko da. Lehen txirrindularia 14:15ean irtengo da; azkena 17:15ean, 17:30ean irteteko.



Martitzena, 9
Zumarraga-Gorraiz (149,5 kilometro)
 Lasterketa 13:37ean hasiko da eta 17:20/17:40 bitartean amaituko. 4.800 metroko *sterrato*az gain, bi mendate ditu: 3. mailako Olaberria (23. kilometroan) eta Lizarrusti (42. kilometroan).

Eguaztena, 10
Sarriguren-Estibaliz (184,8 kilometro)
 Lasterketa 12:18ean hasiko da eta 17:15/17:45 bitartean santutegian amaituko. Itzuliko etapa luzeenak bi mendate ditu: 2. mailako Goñi (27 kilometroan) eta 3. mailako Opakua (134 kilometroan).

Eguena, 11
Gasteiz-Arrigorriaga (164,1 kilometro)
 Lasterketa 13:12an hasiko da eta

17:20/17:40 bitartean amaituko. Etapak lau mendate ditu: 1. mailako Bikoitz Gane (127 kilometroan) eta 3. mailako Campa Hafade (56 kilometroan), Garate (97 kilometroan) eta Zaratamo (162 kilometroan), azken hori helmugatik bi kilometrora.

Barixakua, 12
Arrigorriaga-Arrate (164,1 kilometro)
 Lasterketa 13:40ean hasiko da eta Arraten amaituko 17:20/17:40 bitartean. Etapak zazpi mendate ditu: 1. mailako Ixua (110 kilometroan) eta Usartza (148 kilometroan) eta 3. mailako Morga (17 kilometroan), Naxitua (53 kilometroan), Bedarona (58 kilometroan), Arribinieta (87 kilometroan) eta Trabakua (130 kilometroan). Ixuakoak 3 kilometroko luzera du, %12,7ko malda eta 389 metroko desnibela. Usartzakoak 5 ki-

Garajes Garcia - Verge MTB taldea sortu dute



Eibar eta Ermuko bost lagunek osatzen dute Garajes Garcia – Verge MTB Taldea, eta Master 30 mailan lehiatzen dira horietako lau eta jubeniletan bestea. Mendiko bizikletako *Euskadiko Openean* eta *Green Series* delakoan lehiatzen dira, eta dagoeneko bi lasterketatan hartu dute parte. Proba bietan nahiko maila ona eman badute ere, herriko txirrindulariei lehiatzeko aukera emateko sortu dute taldea, ez hainbeste postu onak lortzeko. Euskadiko probez gain Katalunia edo Burgosen ere lehiatuko dira taldeko hainbat txirrindulari, besteak beste, eta UCI mailako *Rioja Bike Racen* ere egongo dira.

Taldeak *Rocket Bike* bizikleta-dendan du egoitza eta Jon Hernandez da bertako arduraduna. “Eibar eta inguruko herrietan ez zegoen MTB talderik, baina bai bakarka lehiatzen ziren hainbat txirrindulari”, dio Hernandezek. Taldeko kide izateko atea irekita daude, “bakarka lehiatzen diren hainbat txirrindularik gurekin bat egingo dute hurrengo denboraldian”, eta emakumezkoen taldea sortzeko asmoa dute. “Gainera, haur eta gazteentzat mendiko bizikletako eskola sortu nahiko genuke, baina nolako eskaera dagoen ikusi beharko dugu”.

Herrian badugu afizionatuen mailako taldea

Eibar Energia Hiria Debabarrenak honako 17 txirrindulari ditu denboraldiari aurre egiteko: Telmo Albisu, Manex Alkorta, Mikel Arregi, Iñigo Etxarri, Ander Gartzia, Ander Gutierrez, Imanol Isasa, Aitor Larrañaga, Mikel Mujika, Txomin Osoro, Julen Otero, Edorta Perez, Mikel Perez de Obanos, Urko Senperena, Liher Unzueta, Xabier Zabala eta Iñigo Zapirain. Horietako hiru dira Eibarkoak: Gutierrez, Osoro eta Perez de Obanos. Valenciaga Oroitzarreen ere parte hartzeko zazpikotea osatu dute dagoeneko: hor izango dira, Mikel Mujika talde-buruarekin batera, Perez de Obanos eibartarra, Alkorta, Arregi, Etxarri, Larrañaga eta Zabala. Taldeak otsailaren 23an hasi zuen denboraldia Zumaian eta irailaren amaieran amaituko du Zaldibarren. Tartean, Valenciaga Oroitzarrea jokatzearaz gain, Espainiako Kopako beste bi probei egingo dio aurre: honezkero jokatuako Aiztondo Klasikoa eta maiatzaren 1ean egingo duten Legazpikoa. Horiez gain, maiatzaren 8tik 12ra Bidasoako Itzulian hartuko dute parte, Nafarroakoan maiatzaren 29tik ekainaren lehen asteburura arte eta Bizkaiko 3 Eguneakoan, hilaren 7tik 9ra. Galder Lasuen taldeko arduradunaren esanetan, "proba guzti horietako emaitzekin osatzen duten Lehendakari eta Euskaldun Sarietan puntuak lortzen ahaleginduko gara. Badugu aurrera egiteko nahiko lan, taldeko asko jubeniletatik igotako gazteak direlako".



lometroko luzera, %8,8ko malda eta 429 metroko desnibela.

Zapatua, 13

Eibar-Eibar (122,2 kilometro)

Lasterketa Untzaga plazan hasiko da 14:10ean eta Toribio Etxebarrian amaituko 17:20/17:40 bitartean. Etapak sei mendate ditu: 1. mailako Azurki (56 kilometroan) eta Karakate (81 kilometroan), 2. mailako Asensio (103 kilometroan), eta 3. mailako San Miguel (9 kilometroan), Kalbario (38 kilometroan) eta Elorrieta (45 kilometroan). Azurkikoak 6,4 kilometroko luzera du, %6,8ko malda eta 436 metroko desnibela. Karakatekoak 5,2 kilometroko luzera, %8,5ko malda eta 444 metroko desnibela.

Tolinen liburua salgai izango da

Txirrindularien argazki eta testigantzen bilduma aurkeztu zuen aurrekoan Juan Mari Tolin argazkilaria zarauztarrak. Liburuak 20 txirrindulari ditu protagonista, tartean Marino Lejarreta, Abraham Olano, Markel Irizar, Joseba Beloki, Joane Somarriba, Leire Olaberria eta Amets Txurruka. Azken 25 urteetan ateratako irudiekin (350etik gora) eta azken hiru urteotan egindako elkarriketekin osatu du liburua.



www.tolin.es helbidean dago liburua salgai eta Valenciaga Oroitzarrea eta Euskal Herriko Itzuliaren irteera eta helmugetan ere erosteko aukera egongo da.

DORTSAL PROBISIONAL AIPAGARRIENAK.– Movistar: Mikel Landa (1), Quintana (4), Soler (6). Bahrain Merida: Bole (11), Padun (14). Bora-Hansgroge: Buchmann (21), Konrad (23), Schachmann (27). Astana Pro Team: Fuglsang (31), Pello Bilbao (32), Omar Fraile (33), Gorka Izagirre (34), Ion Izagirre (35). Deceuninck - Quick-Step: Alaphilippe (41), Mas (45). AG2R La Mondiale: Geniez (51). Lotto-Soudal: Vanendert (61), Monfort (66). Katusha Alpecin: Spilak (71). Sky: Thomas (81), Kwiatkowski (86). Mitchelton - Scott: Adam Yates (91), Mikel Nieve (95). UAE - Emirates: Rui Costa (101), Henao (102), Daniel Martin (103), Ulissi (107). EF Education First: Woods (111), Sean Bennett (112). CCC: Bevin (121). Dimension Data: Meintjes (131). Groupama - FDJ: Molard (141), Gaudu (143). Sunweb: Nicolas Roche (151). Jumbo - Visma: George Bennett (161), Tony Martin (164). Trek-Segafredo: Mollema (171). Cofidis: Herrada (181). Euskadi - Murias: Mikel Bizkarra (191), Garikoitz Bravo (196), Oscar Rodriguez (197). Caja Rural-Seguros RGA: Jon Irisarri (204), Jonathan Lastra (205). Manzana Postobon: Reyes (211). Burgos BH: Madrazo (221)

EIBARKO BIZIKLETA

GIANT

CENOA
ENJOY THE RIDE

TXIRRINDULARITZARAKO GUZTIA
(salmenta eta konponketa)

ANDONI RETENAGA *zure konfidantzazko mekanikaria*
Karmen kalea, 4 andoni@ciclalia.es 943 530 212

BIZIKLETAK • ALDAGAILUAK • OSAGAIK • ERROPA • OINETAKOAK

asteleheneetik ostiralera: 10-13/17-20 zapatuetan: 10-13

*iker aranberri*

Kontsumo mailari eusteko 1,7 planeta beharko genituzke xahututako baliabideak planetak modu jasangarrian berritu ahal izateko

Earth Overshoot Day

Gure planetak oreka bat bilatzen du bertako biztanleok kontsumitzen ditugun natur-baliabideen eta baliabide horiek berritzeko beharrezkoa den denboraren artean. Beraz, natur-baliabide asko ustiatzen baditugu, planetak denbora gehiago beharko du baliabide horiek berritzeko. Mundua enpresa handi bat baltz bezala, urtero natur-baliabide kopuru bat egokitzen zaigu (gure natur-aurrekontua deituko diogu), eta tratu bat egiten dugu planetarekin: "guk, urte honetarako dagozkigun baliabideak bakarrik gastatuko ditugu; horrela zuri, Lur planeta, denbora emango dizu baliabide horiek berritzeko". Gure natur-aurrekontua urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 artean xahutzen badugu (edo guztia gastatzen ez badugu) esan nahi du ongi gabiltzala, garapen jasangarriaren mugen artean mugitzen ari garela eta dugun planetarekin aski dugula bizirauteko. Natur-aurrekontu horren gutxi gorabeherako kontrola bermatzeko *Earth Overshoot Day* izeneko data erabiltzen da. Zenbait kalkuluri esker jakin dezakegu beharrezkoa baino gehiago

ala gutxiago gastatzen ari garen, edota urteko zein garaitan gertatzen garen jada natur-aurrekonturik gabe. 70. hamarkadan *Earth Overshoot Day* delakoa abenduan kokatzen zen. Alegia, ia urte amaierara arte irauten zigutela urte horretarako egokitutako natur-baliabideek. 1995ean urriaren 5ean iritsi zen egun hori, 2005ean abuztuak 26an eta iaz, 2018an, abuztuaren 1ean. Horrek esan nahi du egun horretatik aurrera, planetak guretzat hurrengo urterako gordeta zituen baliabideak erabiltzen ari garela; hots, maileguan bizi garela, planetari ez diolako astirik eman guk gastatutakoa berritzeko. Horiek mundu mailako datuak dira baina herrialdeka joanez gero ikusiko dugu AEBek, esaterako, iaz martxoaren 15ean gastatu zutela beren natur-aurrekontua, Frantziak maiatzaren 5ean eta Espainiak ekainaren 11an. Kontsumo maila horri eusteko 1,7 planeta beharko genituzke guk xahututako baliabideak planetak modu jasangarrian berritu ahal izateko. Gaizki gabiltza, eta denborarik gabe gelditzen ari gara.

*malen illarramendi*

Argazkiek, oroigarriek edo oroitzapenek betetzen zuten tokia betetzera etorri ote dira tatuajeak? Zaila da bakarria duena topatzea

Tatuajeak

Gauza jakina da ADNak definitzen gaituela. Nork berea eta bakarria du. Ez dago nahasteko aukerarik. Kode honek adierazten duenak mugatzen gaitu. Horixe gara; horixe da gure zigilua. Badirudi, ordea, azken aldian, gazteak -eta ez hain gazte- beste mota bateko kodea, propioa, dugula gustoko. Tatuajeez ari naiz, eta ez bakarraz, ADNaren kasuan bezala; aitzitik, zaila da bakarria duena topatzea; izan ere, esango nuke mendekotasuna sortzen dutela azaleko marrakzi, ikur, esaldi, argazki edo dena delako horiek. Batekin hasi eta azal zati garbirik ez izaterainoko adikzioa. Edertu egiten gaituzte, gaztetu, nolabait. Baina, zer gertatuko da zahartzen garene-

an? Azala orain bezain tinko eta sendo ez daukagunean? Orain marraztutako irudiek eta abarrek ez gaituzte lotsatuko urteekin? Ez dute zentzurik galduko? Eta formarik? Oso hurbileko batek esaten zidan olatu bat, elurraren ikonoa, gurasoen eta ahizparen inzialak zituela tatuatuta, inoiz ez ahazteko ez etxeokak, ez elurretan pasatuko une ederrak, ez surf egiten igarotakoak. Larregikoa iruditzen zait. Argazkiek, oroigarriek edo oroitzapenek betetzen zuten tokia betetzera etorri ote dira tatuajeak? Eskumuturraren barruko aldean ditudan bi izarrei begira, nire aitxixa-amamak zirenek keinu egiten didate eta aurreko galderari erantzun.

EIBARKO KORO GAZTEA

APIRILA

GAZTEON!



Egilea: Malen Illarramendi

...ETA KITTO!



EIBARKO KORO GAZTEA

10 urte igaro dira jada Eibarko Koro Gaztea sortu zenetik, ilusio handiz eta abesteko gogo handiarekin sortu ere. Gaur egun, gaztea bai, baina honezkero eskarmentuduna ere bada; izan ere, ez dira gutxi izan hamarkada horretan taldeak bizi izandakoak: taldekide aldaketak, lehiaketak, musikala, telebista, elkarrizketak, hamaika ikuskizun ... Zer esanik ez urduritasun-uneak, pozak, negarraldiak, eta entsegu-ordu amaiezinak. Bizipen horien guztien berri emateko, hamar urte hauetan koruko zuzendaria izan den Elena Martin izango dugu bidelagun, batetik; eta, bestetik, momentu honetan taldekide diren Ainhoa Beorlegi eta Mireia Areitio abeslari gazteak.



Elena Martin, zuzendaria

Hastapenetara jota, 2008. urteko udazkenean jaio zen Koro Gaztea sortzeko asmoa. Zuzendariaren hitzetan “Jose Mari Sagarnak eta biok musika eskolako pasilloetan topo egin genuen, eta esan zidan koru gazte bat osatzeko ideia zeukala buruan bueltaka”. Elenak, Sagarnaren proposamen hori entzun bezain pronto, denborarik galdu gabe, ideia garatu eta informazioz betetako txosten bat prestatu zuen musika eskolarako, zeinetan proiektu berria zehaztasunez aurkezten zuen. “Horrela eman genion hasiera lehenengo koruari, nahiz eta ofizialki 2009. urtean ekin genion lanari”, gehitzen du Elenak.

Talde moduan, hasierako funtsezko helburua korua aurrera

nagusientzako koruak zeudela, zera pentsatu zuen Elenak: “Zergatik ez sortu gazteei zuzendutako talde bat?”.

Hasierako helburu xumeetatik, hala ere, berehala aldendu zen Martinek zuzendutako taldea. Izan ere, bizirik jarraitu ez ezik, begi-bistako aurrerapausoak eta lorpenak ere izan zituen urtez urte EKGk. Honela dio, behintzat, Elenak: “Puff... hamar urte hauetan eskarmentu handiak pasa ditugu. Baina niri bi momentu edo esperientzia nabarmentzea gustatuko litzaidake. Bata, Oh Happy Day telebistako lehiaketa: hiru hilabetez etengabeko lana egin genuen, sekulakoa. Astero abesti eta koreografia berri bat prestatu behar genituen, eta, pentsa daitekeen moduan, lan handia zegoen horren atzean. Eskerrak Pedro Luke eta Karmele



Ainhoa Beorlegi eta Mireia Areitio





Etxeberriaren partetik laguntza handia jaso genuen. Bestea, orain dela 3 urte egindako musika, Forjarien Kanta izenekoa. Horretarako ere lan itzela egin genuen, batez ere, abesteaz gain, antzezten eta dantzatzen ere hasi ginelako. Oso proiektu interesgarria iruditu zitzaidan.”

Taldeko partaideak hautatzeari dagokionez, gauza jakina da musika-talde batean sartu ahal izateko gutxieneko baldintza batzuk bete behar direla. Kasu honetan, zuzendariak garbi dauka: “Oinarrizko entzumen-afinazioa izatea ezinbestekoa da. Zuri kantatzea gustatzen bazazu, baina halamoduz moldatzen bazara ... Ez da hori kontua”. Koruko kide diren Ainhoak eta Mireiak, ordea, baldintza orokorragoak eta xumeagoak aipatu dizkigute: “Abesteko eta ondo pasatzeko gogoia izatea da garrantzitsuena, eta lotsa alde batera uztea”.

Esan gabe doa Eibarko Koro Gazteak egin dituen kontzertu eta ekitaldiak, maila bikainekoak, ez direla egun batetik bestera osatu, ezta gutxiago ere, sekulako lana baitago horietako bakoitzaren atzean.

Lan- eta entsegu-ordu asko eta sakrifizio handia dago horren guztiaren atzean. “Astean 3 entsegu-saio egiten ditugu talde-lana fintzeko, eta, horrez gain, nork bere kabuz ere entsegu indibidualak egiten ditu, bakar-kako zatiak indartzeko. Azken finean, kantatzea gustatzen bazaizu, etxean abestu egingo duzu”, diosku Ainhoak.

Teknologiaren garaia deitu daitekeen honetan, zer izango litzateke sare sozialik gabeko musika-talde bat? Pentsaezina da hori, noski. “Instagram, Twitter eta Facebook erabiltzen ditugu gure lanak ezagutzera emateko, jendeak jakin dezan zertan ari garen” diote koruko kideek aho batez. “Sare sozialen garrantzia ukaezina da gaur egun, eta korua modernizatzen eta sasoi berrietara egokitzen saiatzen gara horiek erabiliz” gehitu dute.

Apirilaren 12an, kontzertua

Horiek horrela, taldeari zein herriari begira, dagokion garrantzia eta zabalkundea eman nahi diote hamarkada honetako ibilbide oparoari. Egia esan, 10. urteurrena behar bezala ospatzeko egingo duten me-

gakontzertuaz galdetuz gero, irribarrea ateratzen zaie gure protagonistei, ekitaldi hori zein ilusioekin ari diren prestatzen erakusten duena. Honela dio Elenak: “Aurreratuko dizudan bakarra da espektakulu ikusgarria izango dela: bakarlarriak, talde-kantuak... denetarik egingo dugu”. Ez galdu, beraz, apirilaren 12an, arratsaldeko 20.30ean, Coliseo Antzokian egingo den ekitaldia. Koruko kideen hitzetan: “Gutako bakoitzak indibidualki koruari eskaintzen diona ikusi ahal izango da megakontzertuan, eta talde gisa daukagun kohesioa ere transmitituko dugu. Gainera, koru hitzak daukan aurreiritzia edo estereotipo hori alboratu nahi dugu, jendeak korua elizarekin lotzen baitu askotan, eta guk gauza desberdin asko egiten ditugu, ez dauka horrekin zer ikusirik”. Sorpresaz jositako ikuskizuna izango da, zeinetan Eibarko Koro Gazteak merezitako omenaldia egingo dion 10 urte hauetan egindako lan eta sakrifizio guztiari, baita urte hauetan zehar koruko partaide izan diren gazte guztiei ere, eta bereziki, proiektu hau urtez urte aurrera eramatea ahalbidetu duen Elena Martini.

ERREPORTAJEA ONLINE

Erreportaje honetako protagonisten hitzak gertuagotik ezagutu nahi badituzu, edota irakurri beharrean nahiago baduzu bideoz ikusi... ez ezazue galdu YOUTUBE-n “gazteOn! eta kitto” kanalean dagoen bideoa.

Hona hemen esteka:

https://youtu.be/zr03sFk_dTg

EZ EZAZUE BIDEOA GALDU ETA EMAN IZENA KANALEAN!

E I B A R K O



K O R O G A Z T E A



K O N T Z E R T U A N



1 O U R T E



COLISEO ANTZOKIA
APIRILAK 12, 20:30
SARRERA: 5€



gaztekitto

eibarkokorogaztea



gazteOn! eta kitto

eibarkokorogaztea



...eta kitto!

eibarkokorogaztea

SARRERAK

Online esteka:

<https://ticket.kutxabank.es/janto/>

Coliseoko leihatilan
(astelehen eta barixakuetan,
17.30etik 19.30era).

Aitor Montero motorzalea garaile denboraldiko lehen lasterketan

Ezin hobeto hasi du Abiadurako Autonomien Arteko Txapelketa Amañako pilotoak, Jerez de la Fronteran jokaturako lehen proba irabazita. Aurredenboraldian bakarrik bi entrenamendu eginda, kaxoiaren gorenera eraman zuen lasterketa egiteko gauza izan zen, "aurretik Albaceteko zirkuitoan izandako bi erorketen ondoren halakorik espero ez nuenean". Hasieratik ezarritako eritmoari eustean ikusten du Monterok garaipenaren gakoa eta,aldi berean, dituen babesleak gogoratzen ditu: "Bizkai Motor Racing, Manager, Bea transmisiones, I+DENT, Pinturas Moto, Michelin, TEAM MTR eta Mieres Racing".



Somos Eibar Eskubaloiak mailari eustea lortu zuen Iruñean irabazita



Somos Eibarkoak pozarren Iruñean irabazi eta gero.

Etetik kanpo eibartarrek jokaturako denboraldiko partidu onenarekin irabazi zion Somosek sailkapeneko erdialdean dagoen Jacar San Antonio talde handiari. Perales atepean eta egindako defentsa itogarria izan ziren garaipenaren gaketakoak, "jaurtiketetan egindako selekzioarekin batera, gauzatutako penalitiak tartean". Nesken lehen taldea 30-16 erraz nagusitu zitzaion Oskarbi Legazpiri, hauen kasuan ere egindako defentsa bikainari esker; gainera, ia jokalaririk sartu zizuten golak. Haritza gizonezkoen bigarren taldeak, berriz, denboraldiak

aurrera egiten duen neurrian indarra galtzen doa eta 35-32 galdu zuen Bidasoarekin.

Harrobiari dagokionez, jubeniletan nesken taldeak 18-21 irabazi zion Erreterian Ereintzari eta mutilenak 21na berdindu zuen Donostian Egia-ekin. Kadeteetan, Teknikerreko mutilak 36-23 erraz nagusitu zitzaizkien Elgoibarkoei, nesken taldeetan Muelles Zalduak 16-19 Zarautzen irabazten zuen bitartean, Komatek 13-21 galtzeko lporuan Gasteizko Vital Fundazioarekin. Azkenik, infaniletan bi garaipen eta hiru porrot izan zituzten Eibar Eskubaloiko taldeek.

Hiru taldek jodute aurrera foball-zaletuen txapelketan



Denboraldia amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, batez ere biren arteko lehia dago sailkapenaren gorengoan, Durango hirugarren sailkatuak tarte gutxi duelako kentzen dioten tartea errekuuperatzeko. Garajes Garciak hiru puntuko alde ateratzen dio Azkena Adahiri (honek partidu bat gutxiago du) eta biak dira hautagai nagusienak liga irabazteko. Laugarren postutik 10.eraingo zazpi taldeen arteko lehia dago eta azken hirurak (Chic, Larragest Sporting eta Los Paisanos) geratu dira atzean. Asteburu honetako jardunaldian Garajes Garcia liderrak atseden hartuko du eta hori baliatu nahiko du Azkena Adahik sailkapenean harrapatzeko lpor Sagardotegiari irabazten badio. Durango ere favorito da Los Paisanos azkenaren aurrean, baina irabazita ere beste biengandik lau puntura jarraituko luke.

Andoni Mayo podiumera igo zen Molina de Aragonen txakur-trailean

Takuai Mushing taldeko ordezkariak parte-hartze bikaina izan zuen Dexter txakurra-ekin Guadalajarako herri horretan jokaturako proban. Bi manga izan zituen txakur-trailak: zapatu gauean 5,3 kilometrotan jokaturakoa eta domekan 8 kilometrotan jokatu zena. Eibartarrek bigarren egin zuen "antortxekin Erdi Aroko gaztelu baten barrutik" egindako gauekoan eta bosgarren domekakoan jokaturakoa. Hala ere,



bien batuketan bigarren postuari eutsi zion Andoni Mayok. Sonia Dominguezek Zeus txakurra-ekin hartu zuen parte domekan 49. postuan sailkatzeko (80 parte-hartzaile guztira), bere mailako zazpigarrenean.

Herriko squash jokalaria nagusi Euskadiko Beteranoen txapelketan



Salgado, Cabanillas eta Ferreiro Gasteizen irabazitako sariekkin.

Gasteizen jokaturako txapelketa horretan Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak lan bikaina egin dute, 45 urtetik gorako txapela irabazteaz gain, 40tik gorakoenean finalista biak Deporrekokoak izan zirelako. 45etik gorako mailan Miguel Cabanillasek Arrasate Klubeko Jon Diezi irabazi zion finala, hiru jokoak bereganatu. Eta 3-0ko emaitza bera eman zen 40tik gorako finaleran, hor Alberto Ferreirok Sergio Salgado taldekideari irabazita.



Asola Berriko Ganix Rodriguezek indartsu hasi du 50. Gipuzkoako txapelketa

Bergarako San Joxepe bolatokian lortutako garaipenarekin eibartarra lehenengoa da sailkapen orokorrean. Bera izan zen bakarra bederatzitxirlo botatzen eta atzetik sailkatu ziren San Migueleko Angel Ibarluzea (zortzirekin) eta Elgetako Antonio Ibarluzea (zazpirekin). Txapelketaren bigarren jardunaldiak 77 parte-hartzaile izan zituen guztira. Sailkapen orokorrean Ganix Rodriguez eta Angel Ibarluzearen lehia dago une honetan (15 eta 14 txirlorerekin, hurrenez hurren), hirugarren sailkatuak 10 dituelako bakarrik. Asola Berri A nagusi da taldekako sailkapenean, 38 txirlorerekin, eta laura du San Miguel A bigarren sailkatua. Horrez gain, bikoteka Alex Campo eta Ganix Rodriguez eibartarrek agintzen dute eta emakumezkoetan Asola Berriko Sonia Gomez berdinduta dago San Joxepeko Nerea Arano markinarrarekin sailkapenaren gorenean. Bihar hirugarren jaurtialdia izango da Soralezeko San Andresen, 17:00etan hasita.



Negutrail arrakastatsua Uxue Frailerekin

Aurreko domekan amaitu zen Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatutako Mendi Jardunaldietako egitaraua Uxue Fraile lagun zutela egindako negutrailarekin. Eguraldi eta ibilbide zoragarria lagun, txapeldun haundi baten aldamean 16 kilometroko ibilbidea burutu zuten hurbildutakoek, eta ibilbidean zehar Uxue-ri bere kirol ibilbideari buruz jakiteko, zalantzak galdetzeko, gomendioak eskatzeko... aukera izan zuten, hurrengo batean ere errepikatzeko modukoa. Trail irteeraren ondoren bazkarian izena emandakoek Uxuerekin bazkaldu eta tertulia interesgarria izateko aukera ere izan zuten, besteak beste prestaketa fisiko eta psikologikoaz, elikaduraz, lasterketez... hitzegiteko aukera izanik. Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako hurrengo trail irteera maiatzaren amaiera aldean izango da, Udabertraila.

Arima Galduak 12. Internucleos Ligan

Gure herriko jigger taldeak 12. postuan amaitu zuen liga, Zaragozan jokaturako hirugarren eta azken jardunaldiaren ondoren. Arima Galduak-ekoek plantila erdia aldatu behar izan zuen, baina hala ere orain arteko posturik onena lortu zuten euren lehenengo Internucleos ligan. Hilaren 12tik 14ra Zaragozara bueltatuko dira euren bigarren torneo nazionala jokatzera, kasu horretan Alemaniako talde baten parte-hartzearekin. JUNO taldea izan da Ligako txapeldun, Surferos del Ebro eta Mitosen aurretik.





Avia Eibar Rugby taldeak amaitu du denboraldia

Ohorezko A mailara igotzeko finalerdietan Les Abellesekin Valentzian 31-22 galduta, Avia Eibar Rugbyko emakumezkoen lehen taldeak agur esan zion maila horretara igotzeko aukerari. Hala ere, denboraldi bikaina egin dute, azken bi partiduak kenduta (Valladoliden eta Valentzian) beste guztietan garaile izan direlako. Horri esker, hurrengo denboraldian Ohorezko B mailan jokatu dute; ezin da maila igotzea baino gehiago eskatu,

baina oraingoan denboraldi bakarrean bi maila igotzea ere gertu izan dute. Igoera fase honetan ikasitakoa nabarmendu du Cristina Guntin entrenatzaileak, "hemendik aurrera koan probetxugarria" izango delakoan. Uste berekoa da Iñaki Arrizabalaga klubeko presidentea, "itxaropen guztiak beteta, kluba haztea lortu dutelako". Batak zein besteak eskertu egin zuten baita SD Eibarko zuzendariak eskainitako babesa ere.

Jon Osa igerilariak lau proba jokatu ditu Espainiako txapelketan

Estatu mailan garrantzitsuenetakoa diren txapelketak jokatu dira bihartik hilaren 10era arte Sabadelleko Can Llong "Carles Ibars" igerilekuan: Espainiako XX. Igeriketa Irekia, absolutu mailan, eta Espainiako XXXVI. txapelketa juniorretan. Azken horretan Eibar Igerixaneko Jon Osak hartuko du parte: bihar bizkar erako 100 metrokoan, domekan 100 librekoan, astelehenean 200 bizkarrean eta, azkenik, eguaztenean 50 bizkarrean. Bihar, bestalde, hitzordu bi izango dituzte Eibarko igerilariak: benjamin mailako laugarren jardunaldia jokatu da Ipuruan eta alebinen seigarrena Azkoitian.



Alebin mailako igerilariak.



11 domina eskuratu zituzten herriko atletek Unben jokatu txapelketetan

Unben aurreko domeka goizean antolatutako eskola mailako Gipuzkoako Txapelketaren lehenengo jardunaldian 400 atleta inguru batu ziren "laguntzaileei esker primeran irten zen" atletismo jardunaldian. Antolakuntzaren arrakastarekin batera, Eibarko Klub Deportiboko atletak txapelketa bikaina egin zuten eta 11 domina irabazi: Miren Urizarrek txapela jantzi zuen jauzi hirukoitzean eta xabalinarekin, Pello Osorok xabalinarekin, Ugaitz

Fernandezek zilarra irabazi zuen 150 metroan eta brontzea 150 metro hesietan eta pisu jaurtiketan; bigarrenak izan ziren Enara Gabiola (150 metro hesiekin), Enara Magunazelaia (xabalina) eta Aiora Unzeta (pisu); eta, azkenik, hirugarrenak izan ziren Silvia Marquez (150 metro) eta Leire Martin (hirukoitzea).

Deportiboko atleta federatuek, bestalde, Basaurin eta Getxon hartu zuten parte markak egiteko lehiaketetan.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Real Madrid - Eibar (zapatua, 16:15)

2. B Maila

Sporting B - Vitoria (domeka, 12:00)

Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Hernani (zapatua, 16:00)

1. Erregionala

Urki - Usurbil (zapatua, 18:00)

Eibartarrak - Arizmendi (domeka, 17:30)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Numancia - Eibar (domeka, 11:00)

Euskal Liga

Basconia - Eibar B (zapatua, 18:00)

KADETEAK

Euskal Liga

Eibar - Real Sociedad (domeka, 15:30)

FOBALL-ZALETUA

Bar Areto - Slow XOK (zapatua, 09:00)

Chic - JMR Erreformak (zapatua, 10:30)

Larragest - Bar Txoko (zapatua, 12:00)

Durango - Los Paisanos (domeka, 09:00)

Azkena Adahi - Ipur (domeka, 10:30)

La Jara - Feredu (domeka, 12:00)

ESKUBALOA

1. Nazional Maila

Somos - El Pilar Maristas (zapatua, 18:45)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Eibar Eskubal. - Zeppelin (zapatua, 16:45)

Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Salento Elgoibar (domeka, 11:30)

SASKIBALOA

3. Maila

Avia Eibar - Getariako (zapatua, 18:15)

-irabaziz gero, 2. Mailara igoko du Aviak-

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Fortuna - Urbat IKE (zapatua, 18:45)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Claret - Urbat IKE (domeka, 13:15)

KIROL-AGENDA OSOA
etakitto.eus HELBIDEAN

*asteburuko emaitza guztiak
astelehen goizerako*



VIVIANE STRAUB. Bizitza.

Korrikaren 21. edizioak atzo eman zituen lehen pausoak Garesen eta Gasteizen izango du amaiera hilaren 14an. Amaitu baino egun bat lehenago Eibartik pasatuko da eta hemengo ibilbidea eta lekukoak prestatzen ibili da Coral Calvo. Maitasunez egiten duen lana da. "AEK-ri eskertu behar diot euskaraz jakitea. Eurei esker euskaldun berria naiz eta, ondorioz, nire semea euskaldun zaharra. Beti egingo dut euskeraren eta AEK-ren alde, eta Korrika oso garrantzitsua da AEK-rentzat".

CORAL CALVO

(Korrika-ko arduraduna Eibarren):

"Korrikako lekukoa hartzean energia berezia sentitzen da"

- Zenbatgarren Korrika izango da aurten goa zuretzat?

Korrikako 3. eta 4. edizioetan, 1983an eta 1985ean, prestaketa lanetan ibili nintzen. Gero lanean hasi nintzen eta 8. Korrikan berriz deitu zidaten AEK-koek. Harrezkero etengabe ibili naiz Korrikako arduradun moduan Eibar, Elgoibar eta Soroluzen.

- Aurten Korrikaren egun berean Euskal Herriko Itzuliko azken etapa hasiko da Eibartik eta pentsiodunek manifestazioa egingo dute. Dena kontrolpean daukazu?

Julian Eraso Itzuliko zuzendariarekin berba egin dugu eta oso ondo moldatu gara. Lasterketa 14:32etan irtengo da Eibartik eta Elgoibarrera joko du, eta Korrika 14:45ean irtisiko da Maltzagara Soroluzetik. Minutu gutxiko tartea dago, baina printzipioz ez da arazorik egongo. Gainera, Itzuliak keinu bat egingo dio Korrikari.

- Nolako ibilbidea egingo du Korrikak Eibarren?

Azitaindik sartu eta Barrena, Urkizu, Bi-

ttor Sarasketa, Errebal, San Juan, Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Arragueta, Errebal, Toribio Etxebarria, Untzaga, San Andres Pasealekua eta Amaña zeharkatuko ditu Ermura joateko.

- Zenbat lekuko egongo dira?

Gero eta jende gehiagok eraman nahi du lekukoa. Aurten 42 lekuko egongo dira eta dagoeneko batzuei ezetz esan behar izan diegu, tokirik ez dagoelako. Lekuko batzuk 50 metrokoak izango dira, oso laburrak. Elkarrekin, erakundeak, alderdi politikoak, ikastetxeak, enpresak, kirol-taldeak, Ego Gain gerontologikoko langileak, norbanakoak... partaidetza oso handia da.

- Nahiz eta lekukoa ez eraman, nola egin daiteke bat Korrikarekin? Korrika egiteaz gain, noski.

Korrika laguntzailea eginez, adibidez. 12 euro balio du eta asko eskertzen den laguntza da. Bestetik, 21. Korrikaren materiala ere salgai dago.

- Zein da Korrika antolatzeko zailtasun handiena?

Lekukoak antolatzeta. Lekukoa eramango duen erakunde, elkarte edo dena delakoa kokatzeko orduan koherenteak izaten saiatzen gara, baina batzuetan zaila izaten da.

- Noiztik zabilza Korrika hau prestatzen?

Urtarrilean hasi nintzen.

- Eta zure lana Korrika pasatzen denean amaitzen da?

Gero administrazio lanak etorriko dira, diru-kontu guztiak prestatzea. Eibarren oso emaitza positiboa ateratzen dugu beti, zapatu arratsaldean edo martitzeneko ordu txikitari pasatu, berdin dio. Korrika Ermutik datorrenean Juan Gisasola kaletik behera joan eta Untzaga jendez beteta ikusten dudanean oiilo-ipurdia jartzen zait. Demaseko sentazioa da, hunkigarria. Lekukoa hartzean ere energia berezia sentitzen da.

- Ekintza paraleloak egingo dira Korrika girotzeko?

Gazte mugimenduak hainbat ekintza egingo ditu Urkizu inguruan, eta herriko zenbait puntutan musika jarriko dugu hainbat talderen laguntzarekin.



Maite Agirregomezkorta Zubiaurre

III. URTEURRENA: 2016-IV-3

**Ez agurrik,
ez adiorik,
gero arte baizik.**





MIREIA ALONSO
(sukaldaria)

“Eibarren 1.000 kilo lenteja bildu nahi ditugu Lesbosera bidaltzeko”

Eibarrek eta Ermuak bat egin dute Greziako errefuxituentzako 1.000 kilo elikagai biltzeko erronka gainditzeko. Eibarren kasuan pardina motako lentejak bilduko dira, eta arroza Ermuan. Lortutako guztia Zaporeak elkarteari bidaltzeko izango da, Lesbosera kanpamentuetan bizi diren errefuxiatuei jatekoa prestatzen dien boluntario taldearentzako, hain zuzen. Horrez gain, kanpamentuetan hain beharrezkoak diren produktu higienikoak ere jasoko dira (konpresak, pixoihalak eta toallita umelak). Deialdia norbanakoei ez ezik enpresa eta elkartei ere egin zaie.

- Zein da erronka, berez?

Ermua eta Eibarren egingo da. Ermuan 1.000 kilo arroz eta Eibarren 1.000 kilo lenteja pardina jaso nahi ditugu Zaporeak elkartearen bitartez Lesbosera bidaltzeko. Zergatik lenteja pardina? Egosteko errazagoa delako eta han sua oso garestia delako. Ideia Ermuko Sagarra jatetxeko Jesus Gonzalezi azaldu nion eta eurak ere di-da batean mozibilizatu dira. Ermuan arroza biltzeaz gain, Korrikari ongietorria emateko antolatutako ekitaldian 800 paella razio salduko dira 13:30etik aurrera, eta ekitaldian leku desberdinetako sukaldariak hartuko dugu parte. Azpimarratu nahi dut nahi duenak konpresak, pixoihalak eta toallita umelak ere eraman ditzakeela, oso beharrezkoak baitira.

- Eibarren non eta noiz egingo da lentejen bilketa?

Apirilaren 13an Untzagako Jubilatutako Etxean egongo gara 11:00etatik 14:00etara. Eta apirilaren 8tik 12ra oinarritzko hiru bilketa-gune egongo dira: Ipuruan Eibar KE, Urkizun ...eta kitto! Euskara Elkarte eta Amaña es la Cañakoak Amañako kioskoan egongo dira. Dena dela, deialdia egin dugu elkarte eta lan-toki guztiek parte har dezaten, eta 50 kilo baino gehiago jasotzen dituzten lekuetatik gu pasatuko gara materiala jasotzera, Eguazteenan Eibar FT-ak Ipuruan jokatu zuen partiduan bilketa egin zen,

eta apirilaren 12an Coliseoko sarreran egongo gara, 20:00etatik 22:00etara, Eibarko Koro Gaztearen kontzertuan. Kontzertura ez doazenak ere pasa daitezke lentejak eramatera.

- Nolako da jendearen erantzuna?

Sinestezina benetan! Paella egiteko jenero guztia enpresa desberdinen kolaborazioari esker lortu da, lentejak eta arroza almagazten joateko lekua eta logistika eskaini digute, jeneroa gordetzeko kaxak eman dizkigute, zozketak antolatzeko kamisetak...

- Zein da Zaporeak-en lana Lesbosen?

Egunero 1.300 otordu kozinatzen dituzte Lesbosen dituzten sukaldeetan, boluntarioen laguntzarekin. Otordu horiek gero 19:30ean eguna Moriatic 500 m-tara dagoen Team Humanity proiektuan pasatzen duten emakume eta haurren artean banatzen dira. Peio Garcia Amianok abiatu zuen Zaporeak proiektua 2011an, une hartan Etiopari laguntzeko, eta deitu zidan momentutik ekitaldi eta erronka desberdinetan jardun dut, beste hainbat sukaldari bezala, beti jeneroa eta dirua jasotzeko asmoarekin. Gure inguruan etorkizunerako nolabaiteko irizpideak markatzen joatea nahi dugu, eta alerta edo katastrofe bat dagoenean herri bakoitzean elikagai mota konkretu bat biltzea.



Olatz Pagalday eskoriatzarrak eguazteenan Portalean eskaini zuen “Erdaldun Berrien Kluba” bakarriketak oso harrera ona izan zuen eta, ikustera joan zirenek, ederto pasatu zuten kontatu zituen pasadizoak entzuten. Saioa ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu zuen, Korrika Kulturalaren barruan.



Periko Iriondo

Mugarriak ezagutzeko jardunaldi bikaina

Aurreko zapatuan 42 lagun batu zituen 21. Korrika Kulturalaren barruan Sorraluzeko eta Eibarko Mugarriak ezagutzeko antolatutako mendi-irteerak. Batzuk Untzagatik eta Maltzagako Irure auzotik beste batzuk irtenda, hiru bat ordu egin zuten modu lasaian Irure Gaineko 37 zenbakiko magarritik Santutxuetako 52. eraino ikusteko, beti ere mugarri horiek seinalizatu dituzten Julian Etxeberria, Angel Treviño eta Periko Iriondoren azalpenak entzuteko aukera aprobetxatuz. Amaierako hamaiketakoak azken ukitu ezinhobea eskaini zion eguraldiak lagundutako txangoari.




Eguen Zuri argazki lehiaketako sariak banatuta

Aurreko barixakuan banatu zituzten Arrate Kultur Elkarteak antolatutako Eguen Zuri argazki lehiaketako sariak Topalekuan. Felix Morquecho Errastik eskuratu du lehen saria, bigarrena Omar Igual Marcosek eta hirugarrena Pedro San Roman Gomezek. Saritutako lanak eta lehiaketara aurkeztutako beste batzuk apirilaren 14ra arte egongo dira ikusgai, Kultu tabernatik sartuta.

Eibarko Artisten Elkartearen lanak hilaren 28ra arte ikusgai

Gaur arratsaldeko 19:00etan inauguratuko da Portalean apirilaren 28ra arte ikusgai egongo den Eibarko Artisten Elkartearen lanak. Guztira 40-45 laguneren lanak hartuko ditu erakusketak, Jose Agustin Larrañaga elkarteko presidentearen hitzetan "bakoitzaren pare bat lanekin, hainbat arlotakoak: pintura, oleo, akuarelak, marrazkia, eskultura, egurrezko tallak, argazkia, zeramika...". Elkar- teak 165 bat artista batzen ditu, "adinean aurrera goazenak, gutxi dira gazteak", Larrañagak dioenez. Ofizialki sortu zela 52 urte egin ditu Eibarko Artisten Elkar- teak eta urtero antolatzen duen erakusketa "martitzenetik domeketara arte ikusi daiteke, 18:30etik 20:30era".



Eibar BH-ko ikasleen artelanen erakusketa Portalean

Atzoz geroztik ikus daiteke Portalean "Eibar BHI - Adin txiki, artista handi" izenburuko erakusketa. Ikasturte honetan Eibarko DBH eta Batxilergoa bateratu dituzte, Eibar BHI ikastetxe berria sortuta eta, hori dela eta, orain arte Batxilergo artistikoko ikasleek urtero egiten zuten erakusketa beste mailetara zabaldu nahi izan dute. Apirilaren 28ra arte ikusgai egongo den erakusketan, beraz, 2. DBH mailatik hasi eta Batxilergoko 2. maila bitartean ikasten ari diren gazteen lanak ikusi ahal izango dira, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



James Brown Tribute

Bihar 20:30ean James Brown musikari ezagunari omenaldi gisa sortu zen Block Party ikuskizuna hartuko du Coliseo antzokiak, Brodas Bros kataluniako dantza konpainiaren eskutik. Lalo Lopez (Fundación Toni Manero) buru duen Nacion Funk All Stars bandak gidatuko du ikuskizuna, Brodas Bros-en dantza ikusgarriek lagunduta eta, taula gainean, bost dantzarik, sei musikaririk eta bi abeslaririk jardungo dute. Sarrerak 20 euro balio du (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Apirileko argazki erakusketak

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek honako erakusketak prestatu dituzte apirilera: Joan Serranoren argazki erakusketa, Klub Deportiboan; Jose Vilaren "San Francisco" izenburukoa, Portalea jatetxean; eta Jose Luis Irigoienek "Bartzelona" izenekoa, Ambigu tabernan. Horrekin batera, Irigoienek beste erakusketa bat, "Mendiak eta lainoak" izenburukoa ipini du ikusgai Bartzelonan, Fotoespai B.C.I. argazkilaritza eskolaren eskutik.



Akekideen batzarra

Martitzenean egingo du Eibarren AKEBAIk urteko lehen batzarra, 19:00etan, udaletxeko pleno aretoan, gai zerranda honi jarraituta: 2018ko balantzea; 2019rako plana eta aurrekontu aurreikuspena; eta galde-erantzunak.

Ander Maiora idazleak Aforismoen AdA Saria jaso du

Ander Maiora idazle eibartarrak Aforismoen AdA Saria jaso zuen zapatuan Sevilan, egin zen Aforisten Jardunaldi Nazionalan. Maiorak errebelazio autoreen mailan jaso zuen saria, iaz argitaratu zuen eta kritika bikainak jaso zituen 'El páramo' izenburuko liburuagatik.



Maiatzaren 2an abiatuko da XXXV. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa

Martitzen goizean aurkeztu zuten XXXV. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren egitaraua Patxi Lejardi Kultura zinegotziak, Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" teknikariak eta Erika Horrillo Uni Kultur Elkarteko kideak. Maiatzaren 2an hasiko dira emanaldiak, Dramagia konpainiaren eskutik eskainiko den "Mister Blancoren Misterioak" antzerki-magia ikuskizunarekin. David Blanco arabarraren ikuskizuna euskeraz izango da eta Urkizuko parkean ipiniko duten karpa batean izango da. Hurrengo egunean ikuskizun bera eskainiko du, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat, baina Ego Gain kalean (Zugastiren eskulturaren aldamenean). Saioak 30 minutuko iraupena izango du, guztira lau emankizun izango dira eta horietako bakoitzean gehiezin 40 ikuslerentzat tokia egongo da.

Lan horrekin batera, aurtengo egitaraua publiko guztiei zuzendutako zortzi ikuskizunek osatzen dute: "Beldurra" (Eibar BHI), maiatzaren 2an, 11:00etan eta 12:30ean, Coliseoan; "Kontukantari 2, mendian ibiltari", txotxongiloak, (Laenana naranja taldea), maiatzaren 7an, 15:00etan, Hezkuntza Esparruan; "Nere aita ogro bat da" (La Baldufa, Lleida), maiatzaren 9an, 15:00etan, Hezkuntza Esparruan; "Bat" (dantza garaikidea eta eskoletan landutako koreografia), maiatzaren 10ean, 20:30ean; "Jon Braun" (Anita



Martitzen goizean aurkeztu zuten egitarau berria Portalean.

Maravillas), maiatzaren 14an, 15:00etan, Hezkuntza Esparruan; eta "Linbo Planeta" (Dejabu Panpin Laborategia), maiatzaren 16an, 15:00etan, Hezkuntza Esparruan.

Maiatzaren 2an eta 10ean, Coliseo Antzokian eskainiko diren emanaldietarako sarrerak, Coliseoko ohiko salmentaren bidez eskuratu daitezke, 5 eurotan. Eta bestelako ikuskizunak doakoak dira, toki guztiak bete arte (gonbidapenak Egoitza Zentrora, 943254465 telefono zenbakira deituta eskuratu daitezke). Bestalde, ikastetxeek apirilaren 29tik aurrera izango dute gonbidapenak erretserbatzeko aukera, Hezkuntza Esparruan.

XXXV. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa iragarzeko kartela Leire Kareagak egin du eta, aurtun lehen aldiz, ikastetxeetan ipintzeaz gain herriko denda eta tabernetan ere ikusgai egongo da. Eta esku-programaren azken orrian, berriz, ikusitako antzezlanari buruzko fitxa betetzeko aukera egongo da oraingoan eta, Kultura sailean entregatzen dutenen artean, zozketa egingo dute.

Narruzko Zezen taldeak agurtuko ditu Antzerki Jardunaldiak


Domekan taularatuko dute 42. Antzerki Jardunaldietako azken lana, Narruzko Zezen Eibarko unibertsitate taldearen "La comedia de Carla y Luisa". Jose Luis Alonso de Santosek idatzitako testuan oinarritzen den komediaren zuzendariak Manolo Murillo eta Juan Ortega dira eta domekakoa lanaren estreinaldia izango da. Taula



gainean, berriz, Nadia Conlledo, Mireia Diaz, Esti Diaz eta Ricky Martin antzezleek jardungo dute. Hezkuntza Esparruko aretoan izango da emanaldia, 20:30ean eta sarrerak 5 euro balio du.

Codesyntax-ek euskarazko tribiala sortu du telefonoetarako

"Egunean Behin" izeneko euskarazko tribialean egunean partida bakarra joka daiteke, eta irabazleentzat sariak egongo dira astero. Sakelekoen merkatura iritsitako aplikazioa Codesyntax Eibarko enpresak garatu du eta, bi astean, 2.000 lagunek baino gehiagok eman dute izena. Erabiltzaileek tribial moduko hamar galderari erantzun diezaiekete egunero eta, asmatutako erantzunen eta pasatutako denboraren arabera, puntuazio bat lortzen du bakoitzak, sailkapen orokorra eginez parte-hartzaile guztiekin. Mila partidatik gora jokatzeko dira egunero eta astero saria jasotzen du irabazleak. Aplikazioa AppStoren deskargatu daiteke iOS gailuetan, eta Google Playn Android gailuetan.



Koldo (2014-IV-1)

"Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak"

ZURE LANKIDEAK



Kontzertuak gaur eta bihar AZPEITIAN


Azpeitiko Sanangustin Kulturguneak kontzertuak hartuko ditu gaur eta bihar, egun bietan gaueko 23:00etatik aurrera. Kulturaz Azpeitiko Kultur Mahaiaren Kooperatibak antolatuta, Adala izango da gaueko izen nagusia, The Sane Song Band + Revolutionary Brothers-ek (Eira & Ras Lujah & Gustab in the microphone) lagunduta. Bihar, bestalde, Anari izango da izen nagusia eta berarekin joko dute Epilogo Bat eta Birkitek. Sarrerak 10 eurotan daude aurrez erosita eta 12 eurotan kontzertu egunetan lehiatilan erosiz gero.



XXIV. Berdel Eguna bihar MUTRIKUN

Goizeko 10:30ean zabalduko dute Artisau Azoka Txurruka plazan, Eixu Artisau elkartearen eskutik. 12:00etan XIV. Belauntzi Txapelketa jokatu da, Kalaxori elkarteak antolatuta. Ordu berean hasiko da berdel pintxo-potea herriko tabernetan eta trikitilariak kalejira irtengo dute herriko kaleak girotzeko. 13:00etan Mutrikuko Abesbatzak kantatuko du Zabiel Plazan. Behin arratsaldean sartuta, berdel pintxo-dastaketa hasiko da 18:00etan portuan eta 20:00etatik aurrera Enkore taldearen kontzertua izango da toki berean.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Fabian Miñana Rodrigo. 83 urte. 2019-III-2.
- Javier Gordejuela Orozko. 51 urte. 2019-III-19.
- Bernardina Garcia Baraja. 68 urte. 2019-III-26.
- Ramon Cajete Mendez. 85 urte. 2019-III-27.
- Cristina Iriondo Arana. 78 urte. 2019-III-30.
- Juan Saiz Diez. 88 urte. 2019-III-30.
- M^a Carmen Gallardo Romero. 62 urte. 2019-III-31.
- Felipe Javier Arrizabalaga Mardaras. 67 urte. 2019-III-31.
- Felix Bergaretxe Elorza. 87 urte. 2019-IV-1.
- Francisco Mateos Davila. 46 urte. 2019-IV-1.
- Antonio Perez Del Olmo. 92 urte. 2019-IV-2.
- Teresa Agirreamalloa Kalzakorta. 84 urte. 2019-IV-2.
- Jose Antonio Alberdi Atxa-Orbea. 73 urte. 2019-IV-2.

jaiotakoak

- Mateo Seguin Yraolagoitia. 2019-III-19.
- Oihan Balseiro Ramirez. 2019-III-23.
- Asier Alonso Lucena. 2019-III-24.
- Amir Akhdim. 2019-III-27.
- Jeiko Geraldino Alejandro. 2019-III-29.

farmaziak

- Barixakua 5
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 6
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 7
EGUNEZ Castaño (J. Etcheberria, 7)
- Astelehena 8
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Martitzena 9
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Eguaztena 10
EGUNEZ Castaño (J. Etcheberria, 7)
- Eguena 11
EGUNEZ Azkue (T. Etchebarria, 4)
- Barixakua 12
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol. Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

9	5	7	6	2	8	1	3	4
3	6	8	9	4	1	2	5	7
4	1	2	7	5	3	8	9	6
5	8	3	4	7	2	9	6	1
7	9	4	8	1	6	5	2	3
6	2	1	3	9	5	7	4	8
8	7	5	2	3	4	6	1	9
1	4	9	5	6	7	3	8	2
2	3	6	1	8	9	4	7	5

		3			2	4		7
			8	7		5		
	9							8
			2		8			6
	4						9	
2			5		3			
1							4	
		2		3	6			
5		4	1			7		

Barixakua 5

KORRIKA TXIKIA

15:15/17:00. ARNO Djren animazioaz lagunduta.

ZINE-FORUMA

20:30. "Amelia" (Mira Nair) filmaren inguruko bideo-foruma, Pagatxa emakume elkartearen eskutik. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Jarduera irekia eta doakoa. Portalean (areto nagusian).

Zapatua 6

TXANGOIA

10:30. Olaberria eta Ezkiora txangoa, Arrate Kultur Elkarteak eta Aza Ta Porruak Korrika Kulturalaren barruan antolatuta. Autobusa Ego-Gainetik irtengo da.

ZUMBA MARATOIA

11:00/13:00. IV. Zumba Maratoia, AFESD elkarteari laguntzeko. 10 euro. Astelena frontoian.

IPUIN MUSIKATUA

12:00. "Nola dastatu ilargia?" (Kontari eta Kantari). Euskeraz, doan. El Corte Inglesean.

BULKADA EGUNA

12:00. Mahai-ingurua: Topagunearen aurkezpena.
15:00. Herri-bazkaria.
16:30. Bertso saioa: Eli Pagola eta Joanes Illarregi.
18:00. Poteoa, Elektrotxufila elektrotxarangarekin.
20:30. Ekitaldia gaztetxean eta gero afarimerienda.
21:30. Kontzertuak: Issuna, Radio Revolucion eta DJ Fruterixia. Gaztetxean.

KONTZERTUA

20:30. James Brown Tribute (Brodas Bros). 20 euro (14, Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Domeka 7

TXIRRINDULARITZA

09:00. 48. Valenciaga Oroitzarrea. Errepideko Espainiako Kopa Lasterketa. Elite eta Sub-23. Untzagatik abiatuta. (helmuga Toribio Etxebarrian, 13:10ak aldera).

KALEJIRA

11:00. Usartza Txistulari Taldearen kalejira.

ANTZERKIA

20:30. "La comedia de Carla y Luisa" (Narruzko Zezen). 5 euro. Hezkuntza Esparruan.



Astelehena 8

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

BIDEO-FORUMA

18:30. Emakumeen istorioak: Eibarko raketistak. Pagatxa emakume elkarteak antolatuta. Jarduera irekia eta doakoa. Portalean (3. solairuko ikastaro gelan).



Martitzena 9

IKASTEN

10:00. Gaia: "Trantsizioa, familia, sexua" hitzaldia, Jexus Mugikaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

18:30. Munduko janari tailerra. Portalean.

Eguaztena 10

HITZALDIA

19:00. "Gipuzkoan Zigor-destakamentuak". Hizlaria: Aiala Oronoz, "Nicolas Guerendiain" Irungo Errepublikarren Elkarteak argitaratu duen "A pico y pala" lanaren idazlea.



EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

BATZARRA

20:00. Legarreko jaiak antolatzeko. Legarre Gain elkartearen.

Eguena 11

IKASTEN

10:00. "Margolaritza bere osotasunean (Margolari handien zahartzaroa II)" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.



KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, betetera entsegua 18:00etan hasiko da).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:30. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

MUSIKA KORALA

20:30. Northern Harmony, Sostoa abesbatza, Eibarko Koro Gaztea eta Kezka dantza taldea. 5 euro. Coliseoan.

Erakusketak

Apirilaren 7ra arte:

– "UNTZAGA JUBILATU ETXeko ZUZENDARITZAKO KIDEAK, 20. URTEURRENAREN HARIRA", EINER RODRIGUEZEN ARGAZKIAK (*Untzagako Jubilatuta Etxea*)

Apirilaren 14ra arte:

– XXII. EGUNEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETAKO LANAK (*Topalekua*)

Apirilaren 28ra arte:

– "EIBAR BHI - ADIN TXIKI, ARTISTA HANDI" (*Portalea*)
– EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA (*Portalea*)

Apirilaren 30era arte:

– JOAN SERRANOREN ARGAZKIAK (*Klub Deportiboa*)
– JOSE VILAREN "SAN FRANCISCO" ARGAZKIAK (*Portalea jatetxea*)
– JOSE LUIS IRIGOIENEN "BARTZELONA" ARGAZKIAK (*El Ambigú*)


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, NAHIA!!! Bixar 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta famelixakuen partez.



Zorionak, EKHI, domekan 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Adeiren partez.



Zorionak, HELENE, eguaztenian 7 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be Nahiaren partez.



Zorionak, UDANE, domekan 9 urte beteko dozuz-eta. Musu bat Bergarako sorgiñarentzako etxekuen partez.



Zorionak, JULEN Medina, astelehenian 5 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Unairen partez.



Zorionak, UNAX, 4 urte bete dozuz-eta! Musu erraldoia famelixaren eta, batez be, Gari, Markel eta Beñaten partez.



Zorion-on-onak, IGOR! Oso ondo ospatu zure eguna! Famelixa guztiaren eta, batez be, Landerren partez!



Zorionak, IGOR!!! 10 urte, mutil haundi! Musu pillo bat etxekuen partez.



Zorionak, AROA Morquecho Hernandez, atzo 6 urte bete zenduaz-en-eta. Segi holan, sorgintxo!



Zorionak, MADDALEN eta ELENE. Laztan bana, maite zaittuegu.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
7an: 20:00
8an: 20:30

"Las herederas"

Zuzendaria: Marcelo Martinessi

(2 ARETOAN)
6an: 17:00, 19:45, 22:30
7an: 17:00⁽¹⁾, 20:00^(ANTZOKIA)
8an: 20:30^(ANTZOKIA)

"Dolor y gloria"

Zuzendaria: Pedro Almodovar

(2 ARETOAN)
6an: 19:45⁽¹⁾, 22:30⁽¹⁾
7an: 17:00, 20:00
8an: 20:30

"Nosotros"

Zuzendaria: Jordan Peele

(ANTZOKIAN)
6an: 17:00⁽¹⁾
7an: 17:00

"Dumbo"

Zuzendaria: Tim Burton



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
- Pisu merkea salgai Santo Domingo de la Calzada erdigunean. Bista ederrak. Kontzentzako. Tel. 675-803734.

1.2. Errentan

- Emakume arduratsua logela hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 631-141454.
- Landetako kanping batean mobilhomea alokatzen da uztailean eta abuztuan (hila-bete osoa edo hamabostaldiak). Tel. 628-573783.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Plaza bateko garajea erosiko nuke Ubixan edo inguruan. Tel. 680-166507. Javi.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 603-503689.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-466286. Leonardo.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 643-932943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 602-829409.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko: elkateak, pegorak, etxeak. Autonomia. Tel. 631-790555.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-975260.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserri-lanak egiteko eta banatzaile moduan. Tel. 631-402535.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-456295.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-292690.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 600-667606.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-098382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 631-199421.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-891484.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-729476.
- Mutila eskaintzen da banatzaile jarduteko, kamarero bezala eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-590854.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 643-435780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667-060292.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Asteburuak barne. Ordutegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 643-398596.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 602-133120.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-405748.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-506763.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-541124.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 679-946934.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 643-929554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-677230.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 698-733356.
- Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642-487564.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Tel. 666-077157.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-197831.

4.2. Langile bila

- Sukaldaria behar dute Ixua jatetxean. Autoa izatea beharrezkoa da. Tel. 699-953003.
- Fisioterapeuta behar da Eibarko zentru pribatu baterako. Bidali curriculum: eider mugica@hotmail.com
- Zerbitzaria behar da Arrateko Tiro Pitxoian asteburuetarako. Bidali curriculum: vcorada@gmail.com
- Sukaldari, garbitzaile eta kamareroa behar dute jatetxe batean. Tel. 659-539861.
- Ileandegilaguntzailea behar da asteburu eta oporretarako. Tel. 619-928881.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskerak

- Ingeleseko irakaslea (maila altuarekin) behar da Eibarko akademia baterako. Esperientzia baloratuko da. Bidali curriculum-a: academiameetingpoint@gmail.com
- 2. Batxilergoko ikasleak ingeles klaseak behar ditu. Tel. 634-926030.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Selektibitateko klase partikularak ematen ditut. Talde txikiak. Goiz eta arratsalde. Tel. 685-739709.
- Neska euskaldunak klase partikularak ematen ditu LHko ikasleentzako. Tel. 647-615265.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Akordeoi handia salgai. Modelo zaharra. Tel. 605-711422.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Ezkon-eraztuna eta belarririk bat aurkitu dira Urkizuko dorreetan. Jabea ...eta kittolik pasa daiteke.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 10 (asteazkena) 18:30
Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Ianerako gertu!

2019-2020

LESBOS-eko ERREFUXIATUekin BAT EGINEZ



baietz
Eibarren

1.000 kilo

LENTEJA PARDINA bildu!!!

Konpresak, pixoihalak eta toallita umelak ere jasoko ditugu

BILKETA-GUNEAK:

APIRILAK 8-12:

...eta kitto! Euskara Elkartea (Urkizu 11 - solairuartera)
Eibar KE (Ipurua)
Amaña es la Caña (Amañako kioskoa)

APIRILAK 13:

Untzagako Jubilatuen Etxea (11:00-14:00)

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira

2 mó graduatu
erreflexuen aurkako leiarrekin
99€

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



www.multioplicasgipuzkoa.com   

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan